

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda eta hura ordaintzeko epea irekitzea**

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2019ko abuztuaren 5etik urriaren 5era (biak barne).

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2019ko abuztuaren 12an.

Ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabankeko edozein bulegotan egingo dute, ordainketa gutuna udalean jaso ondoren.

B) Betearazte aldia: 2019ko urriaren 6tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte aldiko errekarquak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Berantevilla, 2019ko uztailaren 4a

*Alkatea*

*MARIO PEREA ANUNCIBAY*